

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ereño



Aurkibidea

Udalerria: Ereño

Sarrera



Ereño Bizkaiko barnealdean dagoen udalerria da, Busturialdea eskualdean kokatua. Ibarrangelu eta Earekin egiten du muga iparraldean; Gautegiz-Arteagarekin mendebaldean; Ispasterrekin ekialdean; eta, Kortezubi eta Nabarnizekin hegoaldean. Guztira lau auzo daude: Akorda-Bollar, Basetxeta-Atxoste, Elexalde-Zieta eta Gabika. Herriaren erdigunea Elexalde-Zieta da, San Migel elizaren inguruan sorturiko etxe multzoa. Mendebaldeko euskararen barruan tarteko hizkeraren barruan kokatzen da ereñarren hizkera.

Egilea: [Artxibo Fotografiko Irekia](#)

- **Biztanleak:** 255
- **Euskaldunak:** %85,5

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **22**
- Zintak: **23**
- Pasarteak: **22**
- Transkribatutakoak: **22**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **22**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Diasporako Ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak



Antonia Albizuri Bollar (1938-2013)

Zeeta auzoko Apaizene baserrian jaio zen, baina gerora Bollar auzoko Martikone baserrira joan zen. Bere koinata [Merzedes Kanalaetxeberria](#)rekin (1939) batera egin zitzaion elkarrizketa.

Justina Aldamiz Bastegieta (1922)



Gabikaldekoa baserrian jaio zen, baina Elexalde auzoko Arabastarre baserrira ezkondu zen. Ereñoko Gabika auzoko eskolan ikasi zuen eta josten ikasten ere ibili zen. Ereñoko euskara darabil.

Miren Beaskoa Aboitiz (1918)



Gabika auzoko tabernan jaio zen eta bertan bizi da geroztik. 7-8 urterekin hasi zen eskolara. Ereñoko euskara darabil, nahiz eta luzaroan Eibarren bizi. Australian ere bizi izan zen garai batean.

Maria Luisa Elorza Ugarriza (1918-2012)



Zeeta auzoko Bengetze baserrian jaio zen eta bertan bizi izan zen urte askoan. Gerora Akorda auzoko Aurrekoetxe baserrira joan zen bizitzera eta bertan bizi izan da ordutik. Aita Mendaroko baserri batekoa zuen eta ama Bengetze baserrikoa bertakoa. 3 neba-arreba ziren, baina beste biak umetan hil ziren, hilabete batzuekin.

Eliseo Etxeandia Ormaetxea (1928-2016)



Gabika auzoko Garai baserrian jaio zen eta bertan bizi da. [Inazio](#) anaiarekin batera egin zitzaion elkarriketa.

Inazio Etxeandia Ormaetxea (1932-2026)



Gabika auzoko Garai baserrian jaio zen eta bertan bizi da. Bere anaia [Eliseo](#)ekin batera egin zitzaion elkarriketa.

Ander Etxeandia Zabala (1933)



Basetxeta auzoko Endeitzebekoa baserrian jaio zen 1933an eta 1964an Gabika auzoko Ondaro baserrira joan zen bizitzera, bertako alabarekin ezkontzean. Geroago Amerikara (Idahora) joan zen, beste euskaldun batzuekin batera. [Agurtzane Orueta](#) emaztearekin batera egin zitzaion elkarriketa. Ereñoko euskara darabil.

Julia Gabikagojeaskoa Bajeneta (1931-2021)



Basetxetas auzoko Sendarta arrekoa baserrian jaio zen 1931n eta gerora Atxoste auzoko Miramar etxera joan zen bizitzera. Bospasei urterekin hasi zen Ereñoko eskolan. Ereñoko euskara darabil.

Faustina Gabikagoxeaskoa Zabala (1927-2011)



Basetxeta auzoko Gaztangoiko baserrian jaio zen eta Ereñoko tabernara ezkondu zen (Eleixalde auzoa). 1972an Gernika-Lumora joan zen bizitzera. 4 neba-arrebatatik (3 neska eta mutil bat) bigarrena da. Kanta asko ikasi zituen gaztetan eta gogoan zituen horietako batzuk elkarrizketa egin zitzaionean.

Joseba Garai Agirre (1935-2012)



Basetxeta auzoko Arrupe baserrian jaioa. Ereñoko eskolan ikasi zuen; geroago, Durangoko San Jose kolegiara joan zen, eta batxilergoa Bilboko eskolapioetan egin zuen. Peritu karrera egin zuen eta ontziolatan (Vigon) aritu zen lanean. Elkarrizketa garaian Zeeta auzoko Bengetze baserrian bizi zen.

Felipa Guridi Ibarguren (1923-2017)



Zeeta auzoko Urrutigoikoa baserrian jaio zen 1923an eta bertan bizi izan da beti. Gurasoak ere bertakoak ziren. Lau neba-arrebatatik gazteena da. Etxe alboko errotan aritu zen lanean eskola 14 urterekin utzi eta gero. Bere ahizpa Ziprianarekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Zipriana Guridi Ibarguren (1919-2014)



Zeeta auzoko Urruti goiko baserrian jaio zen 1919an eta bertan bizi izan da beti. Gurasoak ere bertakoak ziren. 4 neba-arrebatatik bigarrena da. Etxe alboko errotan aritu zen lanean eskola 14 urterekin utzi eta gero. Bere ahizpa Feliparekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Maria Milagros Hormaetxea Arrizabalaga (1946)



Akorda auzoko Kasarrike baserrian jaio zen eta bertan bizi da. Gurasoak ere Akordakoak ziren: ama Etxebarri baserrikoa eta aita Kasarrikekoa bertakoa. 5 neba-arreba izan ziren, 3 mutil eta bi neska, eta bera da gazteena. Neba-arrebak gazterik hil edo kanpora joan ziren bizi izatera eta bera geratu zen gurasoekin, alaba bakar moduan ia-ia. Bere aitaren lanbidea jarraituz, postaria izan zen Ereñon.

Mercedes Kanalaetxebarria Albizuri (1939)



Bollar auzoko Martikone baserrian jaio eta bizitakoa. Sei hilabete zituela elbarritu eta gurpildun aulkian ibili izan da ordutik. Bost neba-arrebako sendian hazi zen. Elkarriketa egin zitzaionean, bertan zegoen Apaizenen jaio eta elkarriketa garaian Martikonen bizi zen bere koinata [Antonia Albizuri](#) (1938) ere.

Rosario Kobeaga Aboitiz

Gabika auzoko Urigoiti baserrikoa. Nabarnizera ezkondu zen; senarra hango postaria zen.

Josefa Kobeaga Atxabal (1917-2012)



Basetxeta auzoko Etxezarren jaio zen eta nagusitu arte bertan bizi izan zen. 8 anai-arreba izan ziren, bera gazteena. Aita Bedaronakoa zuen eta ama, berriz, Ispasterkoa. 14 urtera arte Ereñoko eskolan ibili zen eta ordutik aurrera etxeko ardura hartu zuen.

Daniel Lejarreta Omaetxebarria (1917-2009)



Basetxetas auzoko Arrupe baserrian jaio zen, baina Gabika auzoko Anane baserrian bizi da. 6 anai-arrebaren artean bigarrena da. Baserriko lanetan ere ibili arren, harrobian aritu zen lanean.

Angeles Naberan Kobeaga (1923-2017)



Gabika auzoko Omarren jaio zen, baina auzo bereko Arroategi baserrira ezkondu eta bertan bizi izan da harrezkero. Sei neba-arreba ziren eta bera denetan gazteena. Bilbon egon zen neskame eta gero jostun gisa aritu zen.

Agurtzane Orueta Mugira (1937)



Gabika auzoko Ondaro baserrian jaio zen eta bertan bizi da Endeitze baserriko [Ander Etxeandia](#)arekin ezkondua. Harekin batera egin zitzaion elkarriketa.

Mari Feli Zabala Aldekozea (1940)



Atxoste auzoko baserri batean jaio zen 1940an. Bere ahizpa Maria Isabelekin batera egin zitzaion elkarriketa.

Maria Isabel Zabala Aldekozea (1942)



Atxoste auzoko baserri batean jaioa 1942an. Bere ahizpa Mari Felirekin batera egin zitzaion elkarriketa.

Julio Zabala Bernaola (1940)



Aita Ereñokoa zuen eta ama Artiakoa. Aldekoerrota baserrian bizi ziren. Bi arreba ditu. 1950 inguruan aita Ameriketara joan zen, Mountain Home herrira (Idaho), artzain. Julio 1958an joan zen, Wilber Wilsonen arrantxora; jabe beraren arrantxo desberdinetan egon da lanean (1969tik 1977ra "mayordomo" moduan). Maria Luisarekin ezkondu zen, Arteagakoa; gaztetxotatik ezagutzen zuen eta elkarrekin ezkontzeko hitza eman zioten; hala, hura ere Ameriketara joan zen bizitzera; arrantxoko sukaldaria izan zen. Hammeten elkarriketatu genuen, arrantxoan.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. 1918an Bengetze baserrian jaioa

- **Hizlaria(k):** Elorza Ugarriza, Maria Luisa
- **Elkarriketatzailea(k):** Ensunza, Arianne - Reguero, Urtzi
- **Erref:** ERE-005/001
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ensunza, Arianne
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 1918an jaio zen Bengetze baserrian eta bertan bizi izan da beti azken urteetan Aurrekoetxe baserrira joan artean. Aita Mendarokoa

zuen eta ama Bengetze bertakoa. Bi neba-arreba izan zituen, baina biak umetan hil ziren. Amak kontatzen zizkion umetako kontuak.

Transkripzioa

- Lehenengo eta behin esan zeure izena eta bi abizen.
- Maria Luisa Elorza Ugarriza.
- Bale. Eta noiz jaixo ziñen?
- Zemendixen 23en, urtie 18. (1918)
- Eta nun jaixo ziñen?
- Han Bengetzen, beste baserrixen.
- Bengetzen. Eta gero hona ezkondu ziñen?
- Ez, ez. Bengetzen ezkondu ta egon naz bizitzen ni... Zemat urte lñaki hamen?
- SEMEA: Hemen ez dakitz zemat urte baia...hemen hamabost urte inguru ixengo die.
- Hamabost. Ixengo die hamabost?
- SEMEA: Edo hamabi-hamabost.
- Bai, bai. Bai. Ba ordura arte.
- Orduen zure aitxe ta ama be Bengetzekuek ziren?
- Ez, nire aitxe Mendarukue ta ama Bengetzekue. Bai.
- Eta zuen familixek bazeukon, holan, goitzenik edo ezizenik edo?
- Ezizena? Nire famelixen ez. Aitxe kiputxe zan ta "Kiputxe".
- "Kiputxe"aitxeri. Ta amari, ba, bertokue zan ta Isabel eukon izena ta Isabel.

- Ta zemat neba-arreba ziñien?
- Hiru. Baia bata jaixo zan partuen, halako partuen, ezan ondo jaixo, hildde-
edo jaixo biher izen eban eta bigarrena, ba, nebie... hogeta... hogeta bi hillebeteaz hil zan garrotilluaz. Bai.
- Ta gero geratu ziñien zeu eta...?
- Aitxe ta ama.
- Baia zu zer, ume bakarria etxien?
- Bai. Gero bakarrik.
- Ta Higinian gixona-edo ez zan ixen zure nebie-edo?
- E...zer?
- Higinian gixona ez zan ixen zure nebie?
- Nire aman nebie.
- A, zure aman nebie.
- Bai, nire aman nebie ixen zan. Bai. Ta nire amak ez ekon aitzarik, neba-arreba bi izen zien.
- Zeu izen zinen ume bakarria etxien.
- Neu. Neu, neu bakarrik geratu nintzen, hamabost egunekue ni. Ha hil zanien, hamabost egunekue. Bai. Bai, amak esaten dosten "Ezara gero bakarria, e! Ze... nebien mazokadie besuen hartunde zauz-ta". Klaro, amak... altzuen eta hogeta bi hillebeteko umie amagaz usaute ta, kontixu, zeluek eta arrebatxue jo ta mazuaz. Mazutxue eukitxen ei zeban berak olgetako, untziek-eta sartzeko, ta mazuek emon, besuen emon ei dosten mazokadaxue. Gure amak esaten dosten hori.

1.2. Umetako jolasak: "txiauke", "errepisoka", tortolosekin...

- **Hizlaria(k)**: Elorza Ugarriza, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref**: ERE-005/010

- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:24:15. **Bukatu:** 00:26:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ensunza, Ariane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Jolas-orduan "txiauke" jolasten zuten elizpean eta baita "errepisoka" ere. Jolas hau nola izaten zen azaltzen du. Tortolosekin ere jolasten zuten; lau alde izaten zituen: lepotara, zulotara, belarritara eta burutara. Beste jolas batzuk.

Transkripzioa

- Olgeu. Olgeu zetara olgeuten zenduen? Eskola denporan hori esan dozu baia beste joko batzuk-edo eitxen zenduezen herrixen ala eskolatik segidun etxera ala zelan?

- Bai, elixapien txiauke be bai geuk. Elixapien pizarrak esaten jakon ta elixapien be bai. Zuk bakixu pizarreka?

- Bai. Errepisoka esaten gendun guk.

- Bai, errepisoka. Ba hori, zaharrak oker esan dot nik. Errepisoka be bai.

- Ta zelan zan errepisoka?

- Errepisoka? Teilla zati bat-edo ipiñi elixapeko zeritan ta ipiñi ta gero hankiaz erun ha.

- Teilla gañien zeu?

- Bai bai. Hanka bateaz jo ta eruen....Baia errepisoka eitxen zien markak.

- Eskillaratan eitxen gendun guk errepisoka.

- E, nun?

- Eskillaratan. Elixpeko eskillaratan.

- Elixpe barruen guk.

- Elixpe barruen.

- Barruen, barruen. Hasten giñen, markak ein eta gero eskillara baten holako kuadro bat ein holan, holan, ta hankiaz haraxe sartun biher zenduen pizarrie. Alboko erreixak ikuturik be ein barik. Bai eta holan eitxen genduen.

- Txiauka edo hori, zer da?

- Txiauke.

- Harrapetan.

- Txiauke be bai.

- Bai, hori lehen esan dozu.

- Ta gero...zelan zan? Ahaztu jatez niri-te.

- Bueno baia, aber baten bat akordeten jatzun. Tabakin-eta olgetan zenduen?

- Tabakin bai. Tabak hor dekotez. Ikusi dozuez iñoiz tabak?

- Nik bai, txikitxen ikusi dotez baia ez naz akordetan.

- Ba erakutsiko dotsutez ba. Hortxe dekotez.

- Izenak eukitxen biezen aldiek?

- Bai. Ixenak ipintxen dire: lepotara, zulotara, belarritxera, burutera...ipintxen dire. Bueno, ba zer gehixau esateko egon naz...A! Ta gero olgetan genduen ba...miñen puntan dekot gero e! Ai Amaia oin kanbixau jat dana.

- Zu trankil Maria Luisa. Urtengo dau ta bestela ba...haxe.

- "Ando, Anton matarilerilerile. Ando, Anton matarile rilerileron." Eta benga. Eta "¿Qué [ofrece] tiene usted?"

1.3. Mendaroko amonak tortolosak ematen zizkion

- **Hizlaria(k):** Elorza Ugarriza, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** ERE-005/012
- **Iraupena:** 0:00:20. **Hasi:** 00:28:30. **Bukatu:** 00:28:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ensunza, Ariane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Etxean tortolosak gordeta dituela oraindik aipatzen du. Bere aita Mendaroko mendi aldeko baserri batekoa zen. Ardiak zituzten etxean eta amonak tortolosak berari ematen zizkion.

Transkripzioa

- Ta nire aitxitxe zan Mendarokue, kiputxe. Eta bizi...etxie oin be han dau ta jentie bizi de. Mendaro baia mendi-mendi puntan. Zelan esango dotzut nik. Mendi handiko baino puntarau. Eta ardixek ekezan, lantzin ardi bat etxin hiltzen eben ta amumak poltsin-ta tabak niri botaten eztezen. Ta dekotez tabak. Ta gero etxien jaten doguz guk artxue, kontixu, urtin birritxen: Pazkoz eta Gabonez edo Gabon zaharrez. Ta ha, nik eitxen dot, tabak gorde.

1.4. Aita Australian egona; aitaren izakera

- **Hizlaria(k):** Elorza Ugarriza, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** ERE-005/016
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:36:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ensunza, Ariane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena:** Aita Australian egon zen 47 urterekin joanda, hemen ez zegoelako lanik. Aita gizon fina eta alaia zen. Altua zen eta inguru guztiko umeak lepoan hartuta ibiltzen zen, haiekin jolasean. Bengetzeko iturria ezaguna zen inguruetan eta auzotar guztiak haraxe joaten ziren uretara. Aitak Australian irakurtzen ikasi zuen eta bertsoak abesten zituen bertsopaperetatik. Australian diru pixka bat irabazi eta etxera itzuli zen.

Transkripzioa

- Zuen aitxe Australian egon zan?
- Nire aitxe? Bai. Bai. Bai. Berandu jun ta berrogeta zazpi urteaz Australiara jun zan ha. Ta urte bi egin zitxuzen ta Australian irebazi haundixek eta afan haundixek eta kaña ebaten... baia zaharra ixen zan ordun baia kaña ebaten be ein ta diru ekarri hamen ez euen ta. Amaia, hamen ez euen dirurik. Ta diru ekarri, bakixu. Bai, diru ekarri. Ez neure aitxe zalako, baia fiñe zan, fiñe, fiñe, fiñe, fiñe. Ta ona, ona. Zure...

- Ta alegrie bebai.

- Bai, bai, bai. Akordetan zara?

- Akordeten naz apur bet beragaz.

- Bai.

- Askorik ez, baia bai. Domingo Bengetzekue bai, dekot halanik e...

- Bai, zure osaba Domingo gerran hil zan. Altue zan. Altue, oso altue eta mutil ederra. Ta etorten zan Bengetzeko iturrirre uretan, praka luzikaz dauela aitxen besuen holantxik ibiltzeko. Umik halantxik ibiltzen zittun harek danak ta elixaldeko ume guztixek etorten zien Bengetzera. Ta holan: behie ikutu, gora altxau ta umikaz holantxik ibiltzen zan. Ta berak estimau eukitxen eban tokaixue berena. (...), tokaixue berena ganera Domingo estimau eukitxen eban ta esaten eban, neuk be entzuten netzon. Esaten eban Domingok "Hau de gozamina, hau de gozamina!" Ta nire aitxe besuen itxurrixen itxi baldie ta Bengetzeko ezkatzera holan besun ibiltzen. Ta berak be gozau eitten ban. Bai, bai.

- Bengetzeko itxurrixen danok pasau gendun ondo. Umetan asko gustetan jakun itxurrire uretan juatie.

- Bai, bai, bai, bai. Itxurri politxe ixen zan ha. Ur hori oin gastaute dau.

- Ta jentie dana haraxe. Oin ez dau...

- Dana, dana, dana. Atxoste guztixe haraxe. Dana. Dana. Han saso baten kolie egoten zan gero! Ure hartzeko. Kolie. Bai, bai. Bueno.

- Ta zuen aitxeaz amaitzeko, nik entzun dot bertsolarixe be bazala.

- Bueno, bertsolarixe...berak bertsue ein ez zaban eitxen, bestinak abestu, kantau.

- A. Ta zelanik ikesten bazen, papelatatik-edo?

- Papela...esango dotzut. Australiara jun zanien ikesi eban leiduten, bertsopapelak, San Antonionak, bai, beran debotue, San Antonionak, bueno! San Antonion debotue.

- Gure amumak bebai. Amuma Faustina bebai, nire ama.

- Bai, bai, bai. Ixengo zan. San Antonioaitxik gure aitxe, bueno! Ta San Antonion bertso papela topa deu ta haxe leiduten Australian ikasi. Apur bet leiduten: m, a^{ma}, Maria. Ta holan berbak esaten zitxuzen. Eta eskibridu bebai. Baia eskibridu bera be ondo ez zaban eitxen baia paseu xakon Australiara jun zan ta, klaro, kañie ebeitxen dirue, diru lorrixe, librie, libra esterliñie eta jun zan bankure, uzabak emon dotzon txekie ta jun zan bankure ba etzera botateko...txekie kobretan ta bueno jun da bankure ta tope deu neska bat bankuen biherrien eta bota dotzo mostradorera txekie ta baitxe neskiek hartu ta ein dotzoz urre montoixek diruek holan, holan, holan. Ta ez dakit ba zenbat montoi ta gero esan dotzon neskiek "too much money", diru larrei emoten dotzut esan ei dotzon neski horrek. Ta harek diruek kobreu ta kañie ebeitxe pozik etzera bueltateko, pozik etzera bueltateko. Eta holan, holan. Holan, hamen gerra ostien leku txarra egon zan Amaia, leku txarra.

1.5. Tortolosoka eta kanikak

- **Hizlaria(k):** Elorza Ugarriza, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** ERE-005/017
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:36:10. **Bukatu:** 00:38:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ensunza, Ariane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

- **Laburpena:** Tortolosak erakusten ditu. Kanikak ere erakusten ditu. Gaseosa botila txikiek lepoan kristalezko kanika bat ekartzen zuten, tapoiaren funtzionamendua zuena.

Transkripzioa

- (...)
- Pillue dekozuz hemen!
- Bai, pillue dekot behintzet. Amumak hortxe trapuen botata.
- Hemen kanikak.
- Hor kanikak, bai.
- Kanikak zer die, kristalezkuek?
- Kristalezkuek, bai. Batzuk bai kristalezkuek eta...
- Zer diz antziñekuek, Maria Luisa, ala oinguek? Antziñekuek?
- Antziñekuek.
- Bai, e?
- Gaseosa botilla txikiek kanikie eukitten ben.
- Zer? Gaseosa botillak zer?
- Gaseosa botilla txikiek kanikie eukitten eben.
- Nun eukitten eben, barruen?
- Bai, saman.
- Saman.
- Honek, honek, honek, kristalezkuek, kristalezkuek.
- Horrek gaseosa botillatan.
- Bai, gaseosa botillatan.
- Harek txikiek ixengo zien, gaseosa botilla txikiek, ezta?
- Txiki-txiki-txikiek.
- Ta honek bestiek, zer diez, buztiñezkuek-edo?
- Esango dotzut honena, honen pekatue.
- Hamen be badau beste bat, lñaki, horren antzekue. Ta hau besti hau?
- (Semea) Baia honek ze eitten eban gaseosa botillan?
- Tapie, tapie.
- A, tapie!
- Tapie. Saman eukitten eben. Edai eitten zien holan, oin be badauz botillak edaitten dienak holan. Edaitten zan eta hori ba kanpora.

1.6. Tortolosean; tortolosaren aldeak

- **Hizlaria(k):** Elorza Ugarriza, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** ERE-005/019
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:39:00. **Bukatu:** 00:41:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ensunza, Ariane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Tortolosaren alde bakoitza zein den azaltzen du: lepotara, zulotara, belarritara eta burutara. Kanika airera bota eta tortolosari buelta eman behar izaten zitzaion. 6 tortolosekin jolasten zen. Berak amonak emandako ahari tortolosak (handiagoak) zituen eta lagunak inbiditan egoten ziren. Nola jolasten zen tortolosean.

Transkripzioa

- Ta tabien partiek zeintzuk direla esan dozu? Zein da zein?

- Lepue. Lepotara, zulotara...Belarrix. Belarritxera, burutera. Ta bota biher dozu...kanikie ibiltzen gendun. Hori peloti hori ez dakit gero nok umik-edo baten batek ekarri dost niri hori hona. Eta kanikie botaten dozu gora, kanikie botaten zendun gora ta honeri buelta emoten zentzon zulotara, belarritxera... Ta baiña hasi nintzen, gixonak ipiñi gendun baiña ba ezin izen naben.

- Zemat tabagaz eitxen zen?

- Honek die...

- Zemateaz?

- Sei taba. Seiaz. Honek die karneruek. Honek e...

- A, handixauek.

- Amumak botaten dostezenak horrek.

- Handixauek horrek, bai.

- Ta iñok ez zaban eukitxen karnerorik hamen. Ta honek bildotsanak txikixek baiño. Ta honek amumak botaten eustezanak die, niri. Ta gero lagunek inbiditxen eukitxen nitxuen baia neuk eukitxen nitxun estimau! Ta honek karneruek, ardixek zaharrau hiltzen zitxuen lez, haren ardi zaharran tabak.

- Maria Luisa, eta gero holanik ipiñi biher ixeten zan, ezta? Sei tabagaz, ezta? Eta botaten zien, ezta? Bota pelotie eta ein danakaz hori, ezta? Danakaz ein biher zan banan-banan?

- Bai, bai, bai.

- Danak ipiñi biher zien zulotara igul, ezta? Holantxik, danak batera, ezta?

- Bai, bai. Danak.

- Ta gero, eitxen zenduzenien ya danak, zer eitxen zan? Biñen biñe, edo hirune...

- Bai, bai, bai. Holantxik biñan edo hiruñan edo altxetan genduzen. Biñan, biñan seguruen. Biñan altxetan genduzen tabok. Ta ez pentsau danak eukitxen zitxuenik, baia niri amumak botaten dostezen ta amumanak. Ostantzien neuk be ez. Nik bape ez neban euko, neuk, neuk.

- Baiña beixu zelako pillue batun zendun.

- Bai, ta oin danak dekotez...

- Gauzie gaiñera ez da batzie, gauzie da gordetie hainbeste urtetan.

- Bai. Lehengo gixonak be etorri iatezan ta taba pillo galanta ikusi dogu ta barre eitxen eben.

1.7. "Etxetxoka" nola jolasten zuten

- **Hizlaria(k):** Elorza Ugarriza, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** ERE-005/021
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:43:15. **Bukatu:** 00:45:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ensunza, Ariane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** "Etxetxoka" ere jolasten zuten: plater zatiak eta piper pote zaharrak bildu eta haiekin eta lurrean aurkitutako belar eta gauzeekin jolasten zuten. Txilarrarekin arroza egiten zuten.

Transkripzioa

- Ta gero holan, etzetxuke be bai, katxarro zaharrak ta hartute ta horrek bedarrak, uztai-bedarrak horri zabala eukitxen dabe eta harek txuletak

ixeten zien. Ta piper potutan ipiñi ure ta lurre hartunde morokille ein ta...gogun dekozuz horrek?

- Guk ein doguz. Zuek eitxen zenduela ez dot jakin baina guk ein doguz holakuek be.

- Bai, beti. Enei! Gure etxiek solue goiko partien deko Bengetzek, oin landa dau eta deko goiko (...) deko kurba bat, bidi doie baia ha bidie...kurba bat deko, ezta? Ta han kurban etxie eukitxen gendun guk, platerak atrapatzen genduzen, ha plater bat apurtzen bazan ta tabernan nahiko apurtzen zan eta plater zatixek batun ta haraxe ekarten zitxun Jesusak ta hantxe etzie eindde eukitxen gendun platerak eta danak ipiñitxe, piper potiek, batien morokille, bestien saldie ta geure geuzak eta bueno! Mañesi Zianeko, andra edadekue, gixajie andra ona, ene! Zemat gauza parkatzen dosten niri harek ta "Zuk kosiñerie ixen biher dozu, ba! Derrigorrien! Bai umie, zuk kosiñerie ixen biher dozu ze jateko guztixe dekozu ipiñitxe ta!". Ta bedarrak, hau txuletie, hori ez dait zelakue, hori ez dakit zer eta etzebizitzie hantxe ipiñitxe.

- Ta hori, iñerra eta zer ixeten zan? Iñerraren garaunek eta zer ixeten zien? Arroza ez zenduen eitxen?

- Bai.

- Iñerragaz.

- Bai, iñerraz bai.

1.8. Etxea erre zeneko kontuak

- **Hizlaria(k):** Elorza Ugarriza, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** ERE-005/024
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:48:40. **Bukatu:** 00:51:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ensunza, Ariane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena:** Bera gaztea zela etxea erre zitzaien. Bera umeak zaintzera joaten zen eskolatik irtendakoan baserri batera. Han zegoela su-kanpaiak entzun zituen. Kanpaiak seinaleak izaten ziren. Beraiek bazekiten kanpai bakoitza bereizten. Hil-kanpaiak desberdinak izaten ziren hildakoa emakumea edo gizona izan. Arratsalde baten erre zen etxea.

Transkripzioa

- Han salo handixe egon zan. Etxie erre ein zen.

- Etxie noiz erre zan, ba? Holanik zeuek umiek izen ziñienien-edo?

- Bai. Bai. Umiek baño...bai, gaztiek, gaztiek giñen hondiño. Danok giñen gaztiek. Eta ni Aldekosire juten nintzen eskolatik urtetan nabanin ba umiri...umik jaboten. Eta orduen be han egon nintzen umiekaz olgetan. Badakit nun egon nintzen be. Eta...kanpaiak. Klaro, etxe errin kanpaiak. Eta ni kanpaiak-eta...

- Zelan distingiduten zan etxe erriena dala edo hillena dala edo zein kanpai klase dan? Ze ixeten zien, diferentiek-edo?

- Kanpaie ixeten zan etxe errinak zenallie, zenalliek ixeten zien.

- Ta zelan joten eben ba?

- Ez dakit nik ba drin-drau dra, zenalliek eitxen. Igerten zan behintzet.

- Zuek jakin ein zenduen zertarako zan kanpai bakotxa.

- Bai, bai, bai, bai. Jakin gendun.

- Ta noiz joten ban kanpaiek?

- (Semie) Eta ganera, persona bat hiltten zanien tokadak. Baia diferentiek ixeten zien gixonezkue edo andrazkue zanien.

- Bai. Ta gixonari kanpa bi azkanien droun-droun. Baia andriri bat. (...) Eta Aldekosiko umik be Aldekosin ziento bat ume zan ta, Aldekosiko ume pillue: Elvira, Julio, Asi tte Gloria, Jesusa ta bueno! Eta ni ixeten nitzen haren jefie. Elixaldera jutiri itxi netzon Kasimerari umik jabotiarren.

- Ta ba banau...ordun be kosiñan ekin gentzon, leiña, eta bagauz eta hasi zen kanpaie, eta ene! Su-kanpaie dala ta su-kanpaie dala ta ez dakit zer, ta enseida zabaldu zen Boninen dauela su Kasimera garraixe hasi zen, itxi ume guztixek neuri, ion elixaldera. Gero, Aldekosin, Juana-ta, beste kuadrilla...Seferino-ta euzen ta harek be danak igo ben ta Aldekosi guztixen neu umikin gelditxu nitzen. Eta Juliok-edo eskapau ein dosten ikusten su-edo, eskapau, Julio ixen zala pentsauten dot eskapo dostena. Ta arratsalde baten erre zen. Umik ibilli zien olgetan ez dakit zer ta papela biztu ebela ta halanik hartu ebala su. Ez dakitx. Ni Aldekosin egon nitzen behintzet. Etze aurri erre zanien. Ta pentsau be ez gendun eitxen alkarreaz.

1.9. Neska-mutilak plazan dantzan; soinu-jotzaile eta pandero-jotzaileak

- **Hizlaria(k):** Elorza Ugarriza, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** ERE-005/028
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:55:50. **Bukatu:** 00:57:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ensunza, Ariane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Erromeria kontuak. Andres Mendibilek jotzen zuen soinua eta baita beraien alboko Juan eta Fidelek ere. Plazan neskek, zekitenek, panderoa jotzen zuten. Neska-mutilek plazan dantzan ezagutzen zuten elkar.

Transkripzioa

- Holan zan. Ta eleixaldien jentetan!

- Ta beste gauzatxu bat, hori. Gaztetan ta gero plazako neskak ibil ziñienien-ta nobixu kontuk eta horrek zelan eitxen zien tratuek ba? Edo nobixue ezetu-edo neskak eta mutillek-edo...?

- Bai, bai. Neskak eta mutillek erromerixe edarra!

- Hori.

- Erromerixe edarra. Eta zer da kontue eta farrarik jotetik ez. Panderue. Eta gero gure...Andres Mendibil be bai. Andres zuk ez zendun ezeutu, ezta?

- Andres Mendibil bai.

- Ezetu zendun.

- Bai.

- Ha ixen zan soinue, harek jote eban farrie. Ha ixen zan mutil gazte ederra ixen zan ta ha ixen zan farrie jotet ebana. Ta gero gure albokuek, haren

ondoren. Juan ta Fidel. Ezetu zenduzen?

- Ez, Fidel Bengetzekue...Juan...

- Juan Kobiakue. Juan Kobiakue.

- Derrigorrien ezetu biher Juan Kobia, bai.

- Ez dekot nik akordurik, e. Ezetu eingo naben, baia...ta Fidel ez, ze Fidel gerra denporan hil zan. Fidel gure tioaz hil zan, bai.

- Bai. Eta...ze esaten eon gara?

- Hori. Neska-mutil kontuek-eta nobixu topetie eta horrek ia zelan eitxen zenduezan.

- Bueno, ba zelan eitxen genduzen nobixue topetie-ta? Ba nobixuek eta neska-mutillek ba jantzan plazan. Ta panderu joten eben, ba, ekixenak.

Neskak be baekixen ba askok. Florak be bai, krixedie pandero-jotzaillie ta jantzarixe, bueno! Baten! Eta Abaztarren Andonin ama eta ixeko bi egon zien ta harek be panderu joten eben.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Ereñoko eskola; irakasleak

- **Hizlaria(k):** Elorza Ugarriza, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** ERE-005/002
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:02:40. **Bukatu:** 00:04:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ensunza, Ariane
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- **Laburpena:** Ereñoko eskolan ibili zen. Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren eskolan. Irakaslea Abadiñoko emakume nagusi bat zen eta lo egoten zen eskolan. Ez omen zuten erdaraz ere ikasi. Gizona Mungiako don Francisco Arrieta zen, gizon gogorra, jo ere egiten zituen eta. Inguru guztietako umeak biltzen ziren Ereñoko eskolan.

Transkripzioa

- Ta eskolara junikoa zara zu?
- Bai.
- Ta nungo eskolara juten ziñen?
- Ereñora. Ereñon eskolie. Bai.
- Ta eskolan zer egoten ziñien, neskak eta mutillek nahasteta?
- Ez. Neskak aparte ta mutillek aparte. Bai.
- Ta maistrie kanpotarra?
- Bai. Abadiñoako alabie. Zaharra koitxadie. Lo egoten zan eskolan. Erdera be ez gendun ikesi guk eskolan. Keba, euskeraz. Ta gixona Mungixekue, Don Francisco Arrieta. Zuk ezetuko dozu Amaia. Ez, keba, zuk horrek ez. Don Francisco Arrieta. Baia geiztue! Baten, eskolan askorik erakutsi ez baia txatxamurkadak-eta, bueno! Zinturiegaz jotzen eta zinturie ibiltzen eban. Zan e...besuek onak ekozan baia atzamarrak holan, holan, ta atzazalak holakuek eta txatxamurke, bueno! Belarri atzien txatxamurke. Iñoiz jun nintzen ni odola darixola etxera belarri atzien txatxamurkadak eindde. Haren atzamarrak, bueno! Eta eskolarik ikesi... zer erakutsiko doskun ba! Errekreo. Urteten gendun kanpora ta, klaro, hainbeste mutil umetan Ereñon orduen, umetan burdi-bete: Omakuek, Gabikekuek, danak Ereñoako eskolara. Omatik, e! Danak Ereñoako eskolara. Umetan, neskatan, bueno!

2.2. Jolas-orduan "txiauke"; irakaslea gerrikoarekin zain

- **Hizlaria(k)**: Elorza Ugarriza, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref**: ERE-005/003
- **Iraupena**: 0:04:05. **Hasi**: 00:04:30. **Bukatu**: 00:08:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Ensunza, Ariane
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- **Laburpena**: Jolas-orduan "txiauke" jolasten zuten. Neska eta mutil elkar harrapatzen ibiltzen ziren. Guztiz izerditzten ziren korrika; Emeteri izeneko neska batek ura ekartzen zuen baldean eta denek handik edaten zuten. Irakasleak txilina jotzen zuenean berriz eskolara sartzeko, ez zuten entzuten euren iskanbilarekin, eta irakaslea gerrikoa eskuan zuela zain egoten zen banan-banan eskolara sartzean harekin jotzeko.

Transkripzioa

- Eta beti esaten doskuen mutillek "txiauke". Geure jolasa "txiauke".
- Zelan da hori jolasa?
- "Txiauke" bueno, ba, mutilek esaten euben beti "mutillek martxan ta neskak eitxen", asike mutillek eskapan ta gu atzetik segixen ta "txiau" esan biher. Ta atrapetan genduzenak, guk ez gendun iñor atrapetan e, eurek mutillek e, ixeten zienien eitxen neska guztixek atrapetan gaitxuien ta guk ez gendun iñor atrapetan. Ta aiuntamentuko etxie untxe dauen lekuen baia beste etxe bat, etxe zahar bat, beste forma batekue ta kantoie, hor kantoie, etxe kantoie, badakixue. Eta bueno, hantxe, lanbulinbrauko, alkarrerri golpetan korro itzela ta batan batek etorten bazan ezkiñan batetik suertez, e... zelan esaten gentson? "Libre!". Ta ha esanez gero soka guztixe apurtzen zan ta atzera eskapan. Baia ensegida harrapetan gaitxuen.

Neskak eitxen eta mutillek martxan. Ta ez gendun ezebe entzuten. Izerditzan. Bueno, bueno, bueno. Busti, busti, busti eindde. Ta Emeteri, andra ona, koitxadue. Esaten dot nik "Ha ez badau zeruen, ez dau zerurik". Eta balda zabala eskuetan Bengetzeko itxurriko ure, badakixu, bajatu hara, balda zabala urez beterik hartun buruen ta ekarten eban eta balantzaka etorten zan koitxedue. Eta gu, bai mutil ta bai neska, izerdixute atrapetan eta gero, ba, egarri ta Emeteriañe ure edaten ta kola itzela, sokie. Ta bueno, edan ur hori, bakotxak edan ta alde ta azkenien amaittu, amaittu baldakadie. Tangie eukitxen eban edateko ta balda...bakixu horrek baldak, baldak horrek antziñeko burdiñezkuek, balda zabalak, ta tangiek azkanien holan jota ure altzaukeran "tarran!" zaratie ta hala, hartun ure ta danantzako urik ez. Eta hori Arrieta, klaro, pozik. Don Francisco Arrieta zan apellidue harena. Ta pozik gu joteko ta gerriko zinturie zabala ta heundixe, hebilla bat itzela. Ta han dekozue, hara, ta puntatik golpeta ez beran eskun mantsuen hartunde baia hebillien puntie barik hebillie bera joteko e, ulertzen dozue? Hebillie bera joteko. Eta atin paraute. Ta guk zaratarik entzun be ez. Ta Flora, ezetu zendun zuk?

- Bai, Flora. Hemen Akordaetxebarrikue.

- Bai, Akordaetxebarrikue, Flora. Zuenien krixeda. Ta oin be han egongo da txatarrie atien, han egongo da behintzet, ala kendu zenduen atiori?

- Txatarrerixakue? Hantxe dau.

- Hantxe dau ondiño. Ba han egoten zan harrixue. Ta han eitxen eban Florak jabonadurie. Eta han egoten zan jabonetan erropie ta entzuten eban dana Arrietan kontuek. Ta guk ez gendun entzuten ze bata bestieri atrapetan ibiltzen giñen ta Florak urten atera ta atetik Flora diarrez ta entzun be ez hareri be, ha beti nire etxe aurrera, elixapera "Ene koitxaduek, oin be hartu biher dozue ba palizie ba! Zoieze arin, han dekozue ta atien". Txiliñe joten eban txilin-txilin. Guk entzun be ez. Ta "Han dekozue. Ez dozue ikusten ala?" Ta Flora guri errukixegaz guri abisetan ta Arrieta han dekogule. Ta bueno, atien paretan zan hartun zinturie hebillie puntan dabela beran eskun mantsun batunde ta, hala, banan-banan paseu biher ta "dramba!" ta "dramba!", ta gerrixen nahi(z) eperdixen, nahi(z) berratan atrapetan bagaitxuen golpik hartun ta barrure.

2.3. Eskolako zigorrak; behin gertatutako pasadizoa

- **Hizlaria(k):** Elorza Ugarriza, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** ERE-005/004
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:08:35. **Bukatu:** 00:11:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ensunza, Ariane
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Eskolan ez zuten askorik ikasten. Arbelean ariketak egin behar izaten zituzten eta gaizki eginez gero zigortu egiten zituzten. Irakaslearen senarra mantxua zen eta ikasitakoa zenez, hura ere ibiltzen zen eskolan laguntzen. Behin kolpe txikiagoak jasotzearen trapa sartu zituzten galtzerdi barruan, baina irakaslea konturatu eta zigor bikoitza jaso zuten.

Transkripzioa

- Gero tablerora, ta tableruen ezebe ez gendun ikesi. Ezebez nik ez naberen ikesi behintzet, ezebez. Eta trapu zaharrak beterik han kaja bat ta trapu zahar beterik eukitxen eban han kajan. Ta klaro, grabie tablerun kontuk eitzeko eta, ene! Hau gure konture ataten gendun ta hau txarto egongo da ta ezta egongo ondo ta jo ingo gaitxu ta bota txistue ta garbittu tablerue ta kare guztixe hartzen eban trapu zaharrak eta belauniko, lehenengo zinturiegaz jo atien ta gero belauniko.

- Baia zer zan, maisue?

- Maisue, zeuzer ikesinikue.

- Ala maistrie? Maistrien gixona ala maisue?

- Maistrien gixona. Baia maisue ez bera. Holako mantsue zan lez, ba, zeuzer ikesinikue. Apurtxu bet baserritxarrak baiño listuaue. Zeuzer ikesinikue, erdera-ta. Ha ikesinikue. Eta bueno, pentsau gendun, gero bernatan. Han erropak altzeu gora eta bernatan. Ipiñi belauniko eta paluaz "dra-dra-dra". Min. Egun baten pentsau gendun, ta bera beti kanpuen, ein gure ixeten eban eskolie erakutsi barik geuaz drogan, geuri errixetan ein gure ixeten eban, jolastu eitzxen eban holan geuaz holantxik, ta egun baten pentsau gendun, ba, eze, "aj! Miñ eitzxen dosku ta honexek trapu zaharrak sartun biher doguz", ordun kaltzerdi luziek geuk be, erropie bebai ta "honexek sartun biher doguz hemen pantorrillan". Ta baitxe. Bajatu behera ta kanpoan ibiltzen zan ta libertadie eukin gendun guk. Eskolarik ez gendun ikesi ta klaro, ha ez zan egoten erakusten ta guk eskolan ikesi gure bez, gure bez. Ta hartun trapu zaharrak ta bajatu kaltzerdixek ta ipiñi hamen pantorrillan ta altzeu kaltzerdixek gora ta bueno ba ez dosku miñik ingo ta betiko modun erropiaz tapaute ta hartun palue eta paluen puntiaz kendu erropie ta kontuixu bultu handixe kaltzerdixek ta igerri ta igerri ta hasi zen jotun paluaz ta zelako keie! Karie! Heuts itzela! Bueno! Heuts itzela atara genduen eta bueno, berak igerri ia ze eiñ dogun-ta. Eta ezizena danari, danari ezizenak ipinitxe eskolan. Igerri, bueno. Kendu erain kaltzerdixek eta ordun dobleko palizie pantorrillatan.

2.4. Sabina irakaslea lo; senarraren zigorrak

- **Hizlaria(k):** Elorza Ugarriza, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** ERE-005/005
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:11:15. **Bukatu:** 00:15:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ensunza, Ariane
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Irakasleak gaitzizenak jartzen zizkien ikasleei; bati "Anbotoko señoria" deitzen omen zion. Irakaslea, doña Sabina Intxaurrendieta, emakume nagusia zen eta lo egoten zen klaseetan. Senarra aspertuta egoten zen eta eurekin entretenitzen zen. Azazkal luzeak zituen eta atximurka egin edo jo egiten zituen elkarrekin hizketan ikusten zituenean edo bestelakoetan.

Transkripzioa

- Ta ezizenak ipintxen dotsuezan?
- Bai. Jesusari "Anbotoko señoie".
- Ze Jesusa, gure tia Jesusari?
- Bai.
- Anbotoko señoie?
- Anbotoko señoie ta, badakixu, maistrieke beran lekutxue egoteko, ezta? Eta erun hara ta han jesarritxe ipiñi ha Anbotoko señoie dala ta Jesusa. Harek agintzen dabela-edo nik ez dakitz ze pentseten eban. Ta bueno, holan. Ta gehixau ez gendun trapurik ipiñi, ze paliza haundixeue hartun gendun-ta. Eta bata bestiai ba mahaixen zeuzer esaten bagentson, geu be umiek, bakixu, umiek ume die ta barbarik ein barik-eta ezin egon ze batin kanpun egoten zan, bestien guk ez gendun jakitxen nun egoten zan eta holan. Ta atrapetan gaitxun igual alkarregaz berbetan ta bueno! Txatxamurke hamen beran atzazal handixekin belarri atzien ta hori Tomasa... Teles, badakixu, Martikoneko Teles, haren arrebie Tomasa. Geure edadeku da Riojan, hondiño bizi da. Ni baiño... hiru hillebeten diferentzixe-edo dekogu ta pentsa eixu, larogeta hamar ein biher dotez nik ta ha be hor dabil... Ta "Sorginpitxi" ixena ipiñi dotsen hareri. Ta makurtu erain, zera, kokota eta leña hareri be txatxamurke [...] txatxamurke txak. Arpeixe urrutute txatxamurkadak eitxen eta guresuek ezebe ezin esan. Ta gu jauberik barik. Ta hori Jacinta, Jacinta apur bet txatie zan, apur bat, ta "Txata barata con esos dientes de perra de presa!" hareri ta palizie! Baia trankille Jacinta, baten. Baten trankille. Juten zan, urteten eban kanpora gure Arrieta horrek urteten eban kanpora, oin be badeko hor bentanie, hemendik bizi da baia bentanak han dekoz eta bentanan eulixek. Ze ez jakun etorriko geuri, ba! Heutse ta zikiñe baiño besterik ez gendun eukitxen ta eulixek bentanara. Ta Jacinta hain zen trankille, eulixek atrapetan. Ez gendun eukin maixurik eta... han txiauke bebai eskolan bardin eitxen gendun guk mahaixen bueltaka. Ta eulixek atrapetan. Eulixek atrapetan. Ta gero eulixen burue kendu eta papelien batun ta sakatu holan ta klaro, odolak urteten dotzon, ta han eitxen zan holako odol markie-edo dibujue-edo eitxen zan han eta ba pozik gu. Ta bueno ba badabil Jacinta holan, holan badabil, badator atzetik, harexek baia gure ixeten eban drogan ein gure ixeten eban geugaz. Ene! Nik ez dakitx ha, Emeteri ta ha pertsona diferentiek zien behintzet. Geuaz ein gure ixeten eban. Atrapetan dau Jacinta hori bentanan dabillega, datorko atzetik zinturiegaz brin-bra. Ez, paluaz brin-bran-ban! Lepun atrapetan eban ta esan "Txata barata con esos dientes de perra de presa!" ta palixie.
- Erdera apur bet ikesi zendula ze ez jatzu ahaztu hori.
- Ahaztu bai, "Sorginpitxi!". Tomasa Martikoneko "Sorginpitxi", Anbotoko señoie Jesusa eta niri be ez daitz, halako zeuzer "Txata!", "Txata" neuri be. Ta danari izenak ipiñitxe e. Baia jolastu eitxen eban geuaz. Harek ez dotson ardure eskolaitxik ezebez. Aburridute euen, konta eixu, haren andrie bera baiño zaharraue, doña Sabina Intxaurreaundieta Abadiñokue, bera baiño zaharraue ta koitxadie lo egoten zan ta kontuixu aburridute euen andriegaz eta geuaz juergan.
- Dibersiñuen zeuekaz.
- Bai. Ta holan ibiltzen giñen eskolan.

2.5. Dotrina abadearekin; elizako hilarriak

- **Hizlaria(k):** Elorza Ugarriza, Maria Luisa

- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** ERE-005/006
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:15:15. **Bukatu:** 00:17:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ensunza, Ariane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- **Laburpena:** Eskolatik irtendakoan dotrina ikastera joaten ziren abadearekin. Abadeak ere inoiz jo egiten zituen elkarrekin hizketan ikusten bazituen. Elizan hilarriak egoten ziren eta abadeei txakur handia ematen zitzaaien haiek bedeinkatzearren. Abadeak: Zornotzakako don Ignacio Estancona eta Bermeoko don Rufino Ibarra. Estanconaren arreba bere osabarekin ezkondu zegoen eta ez zen hain gogorra, baina don Rufino abade gogorra zen.

Transkripzioa

- Ta holan ibiltzen giñen eskolan. Gero handik urten ta elizara dotriñara ta abadietara. Abadietara ba batzutan ondo hartzen gaitxuen hurrungo bueltan hutsik eitzen bagendun edo inori berba edo eitzen bagendun paluaz burutik behera eta egurre.
- Abadietara be bai paluaz?
- Bai, bai, bai. Sakristerian, sakristerian, badakizu nun dauen, ba han elizan len pater noster-ak eta sepultrie, akordetan zara sepultriaz?, ta txakur handixe-ta sepultrie bota biher zan eta abadik ibiltzen ziren ta isipue, palue, isipue baia zuluk eindde ta txarrix hiltzen zanielen musturreko bizarrak kendu txarrixeri ta hantxe sartun ta ebai ta hori ixeten zan isipue. Ta sakristerian eukitxen ebien abadietara sepultriarako ekarteko, haregaz bedeinkaziñue botata txakur haundixe boltsara. Ta ba, ba, txakur haundixe, erreza eingo eben konteixu, eta horretan ibiltzen giñen ta ikusten bagaitxuen berbetan, eitzen bagendun barbarik edo albokueri ziri edo hartun ta burutik behera harek be. Haregaz paluaz e! Isipueaz burutik bera drik eta drak.
- Isipueaz jo?
- Bai.
- A bai, e? Ha sendue zan, ezta? Mazizo-mazizue.
- Bai bai. Ikusi zendun ala?
- Isopue? Bai.
- A, izeutu zendun, e?
- Bai bai. Badakit nik zer dan isopue.
- Isipue, bai, bai bai. Ba hareaz abadietara be.

2.6. Elizako hilarriak; abadearekin gertatutakoa

- **Hizlaria(k):** Elorza Ugarriza, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** ERE-005/007
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:17:30. **Bukatu:** 00:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ensunza, Ariane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

- **Laburpena:** Elizan hilarriak egoten ziren. Baserri bakoitzak bere hilarria izaten zuen eta hura zaindu egin behar izaten zen. Bere izebak, abadearen arrebak, urrutiago zeuden baserrietako hilarriak zaintzen zituen. Behin abadeak jo egin zituen bera eta beste lagun bat eta izebak gero gogor egin zion abadeari. Honen inguruko kontuak.

Transkripzioa

- Goikolako Ereñora etorten zan, elizara, Omakue, Goikolakue. Ta Goikolakue oin´e Nabarnizera harrezkero baia nik ezagutuniko Goikolako zaharrak Ereñon dauz ya. Ereñora ekarritxe. Ta gero sepulture. Ezetu zendun sepulture? Sepulture. Ta klaro, geixotu zan gure abadi hori, tio esaten eusten, esateko berari “tio” esaten eusten, beran lobak nire lehengusuk zin lez, ondo gogun dekotez “Maria Luisa, niri ez esan gero Don Inaziorik, e! Niri esan tio, e! Zeure lehengusuen moduen, tio.” Ta bueno, ba, tio geixotu zan eta tiak eukitxen eban sepulturan ardurie ta Goikolakue ta ez dakit nungue ta hamen Akordakue eta hainbat sepulturak imiñi eta kendu ein biher ixeten ebazen Domeketarako. Ta tio geixotu zan.

- Ez eban bakotxak berana ipintxen?

- Ez. Urrekuk bai.

- Etxe bakotxekoak ez zaban beran sepulture ipintxen?

- Bai. Elixaldekuk be bai, baia ostantzien Elixaldeko jentik-eta, Akordakuek-eta, Basetxetakuek-eta, Mendiandiko-eta, Goikolakue-ta...

- Horren kargue, ezta?

- Ba, tiak horren kargue. Eta bueno, domeka baten ba bagauz han, tian etzien eta bera ba ebillen biherrien eta abadiak geixorik eukon nebie eta esan euskun baze “Zoieze ta sepulturak batu ein eiztazuz”. Hainbeste sepultura. Ta jun giñen Juan Jose, nire edadekue, sei hillabete ni baiño zaharraue, hondiño bizi da Madrillen, badakixu Madrillen ta Madrilleko familixe hondiño bizi da ta jun gara bixok, jun gara bixok ta abadie sekretarixan ta guk ez gendun jakin sekretarixan badau. Ta ganera olgetan ez giñen ibilli, Juan Jose ta ni trapuk altzetan ta Juan Jose niri esaten “Hori, hori be bai, hori be bai”

- Agintzen ha!

- Urteten dau sekretarixatik geure abadi horrek isepuaz ta bri-bra Juan Jose ta niri be bai ta Juan Josek ospa ta trapuk euezen lekun bota elizan zabal-zabalik eta kanpora! Ta trapurik barik tiañe ta “Zer paseu jatzue?” “Hauxe, hauxe ta hauxe, ta trapuk nik jaurti dotez, joten etorri dxate-ta” Ta bueno, gero abadi hori tiañe, hor Elvira bizi dan etzien bizi zan apopillo neska zahar bateaz, Pedron-ta, tio Pedro? Haren tia zahar bat, Antonia. Ta Serafiña ez dekozu entzuterik?

- Ez.

- Ez dekozu entzuterik...Harexekin bizi ixen zan abadi hori. Ta kontixu konturetu zan, kontixu, txarto ein ebana ta gero tiañe elizara orduko tiañe, eskuek holan igurzten zitxuzen ta altue bera e! Gallardue zan. Ta tia minddute, trapuk be plantxeta eukitxen zitxun-ta zabaldu bota nitxunien ta...eta bueno, ia ze ein dotzien umieri ta behera botaten egon dila ta sepulturak altzauten ibili dila ta tiak ein dotzon gogor abadi horri ta gero zer esan ez dakixela, baia geuri golpe ederrak buruen, zer esan ez dakixela baia golpe ederra buruen. Ta gero abadi hori etxera jun zanien, tire jun ta atzera zelan edo halan doblau ta ipiñi ta plantxeute egoten zien holanik elegante, almidoiaz plantxaute, bai.

2.7. Hilarriak zelan prestatzen ziren elizan

- **Hizlaria(k):** Elorza Ugarriza, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** ERE-005/008
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:21:10. **Bukatu:** 00:23:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ensunza, Ariane
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- **Laburpena:** Hilarriak zelan prestatzen ziren azaltzen du: lehenbizi trapu beltz bat jartzen zen hilarri gainean, haren gainean puntiladun trapu zuria eta aurrerago argimutla. Trapu zuria tolestuta egoten zen eta dirua han barruan sartzen zen, ez ikusteko moduan. Aberatsagoek diru gehiago emango zuten eta pobreagoek gutxiago. Goizeko mezatik meza nagusira bitartean jartzen zen sepultura. Belauniko egoten ziren hilarri aurrean erreztatzen.

Transkripzioa

- Zelan ipintxen zan sepulture? Zuk esan, ze hori be honek ez dakixe. Nik hori badakit baia honek ez dabe hori inoiz ikusi.

- Ba trapu bat baltza lehelengo, trapu baltza ixeten zan holako bailleta antzekue, beran sepulturen markakue, holan, lehelengo ha ipintxen zan ta gero ipintxen zien kandeleruek, bana edo bi edo hiru...edo bueno, kandeleruek.

- Trapu zurixe lehelengo Maria Luisa, trapu zurixe.

-Trapu zurixe plantxeute, plantxeute baia puntilla elegantie-eta, hor dekot nik, trapu zurixe.

- Eta haren ganien gero...

-Gero, esate baterako haulan, ezta? Honek kandeleruek, trapu baltza hamen ipiñitxe, horrek kandeleruek ta gero ha trapo zurixe ganien, kandeleruen ganera puntillie apur bet aillegetan dala, elegante ta belauniko egoteko ez zan egoten...

- Ta platertxu bet-edo ipintxen zan?

- Ez, ez, ez.

- Bertara ganera zuzenien, ezta?

- Bai, bertara ganera, beran trapu zurixen ganien doblate egoten zan lez han doblen sartunde dirue, ba esate baterako zuk ikusi ez deixun edo gitxi gorabehera txakur haundi bat, bi iguel ta aberatsaua danak gehitxuau, bestik gitxiau, ba holan. Ta han trapuen doblen sartunde dirue egoten zan eta ba holan. Altxau eta gu domeka goizien ipiñi...

- Eta noiz ipintxen zan? Zenbat denporatan?

- Zenbat denporatan? Ba esan doten guztixe. Goizeko mezatik meza nagusire bitxartien sepulture ipintxen zan.

- Bai, baia etxekue hiltzen zanien, ezta?

- Bai, bai.

- Eta, kendu segiduen ala...

- Gero kendu bez, kendu bez gero. Bai zera! Ez zaben kendu gure ixeten zaharrak, keba. Sepulture beti.

-Beti?

-Aunke hil barririk ez badekozu trapu baltza kendute. Trapu zurixe. Baia kandelero bat hantxe. Bai. Ta sillarik ez euen. Gero bai agertu zin sillak-eta, baia hankak holan parau, belaunbiko ta gero eperdixen ganien jesarri ta

hantxe, umik be hantxe. Mutillek sikan bankutara-edo juten zien baia andrak hantxe, sepultura halantxik, errezarixuk eskun ta hantxe errezetan ta hantxe. Haxe biximodue. Bai. Trapu zurixe hortxe eukot nik hondiño ba.

- Elegantie zan. Neuk be goguen dekot. Puntilla elegantiekaz eta trapue bera gogortxue baze total almidonaute egoten zan.
- Bai, almidoie. Almidoiegaz dekotela nik pentsetan dot nik be, hortxe euko dot nik pentsetan dot ba...

2.8. Sokadantza eta beste jolas batzuk

- **Hizlaria(k):** Elorza Ugarriza, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** ERE-005/020
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:41:15. **Bukatu:** 00:43:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ensunza, Ariane
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Sokadantzan ere egiten zuten; "Soy la reina de los mares" abestia. Beste jolas batzuk ere egiten zituzten.

Transkripzioa

- Soka saltoan eitxen zenduen?

- Bai, soka dantzan. Soka jantzan, bai. Bi eraitxen ta bata saltoten, banan-banan saltoten.

- Ta ze kantetan zenduen? Kanteu, bitxartien?

- Akordako xat...ai...etxat akordeko oin bape. Kanturik etxat akordetan. A, bai! "Soy la reina de los males y...no puedo ser, echar pañuelito al suelo y después recoger". Gero, ez daitx holan zan "Una, dos y tres". Azkana.

- Erderaz ez daitx. Ta hori esaten zenduenien makurtu eitxen ziñien?

- Makurtu ta paiñelue altxau. Albokue atzera soka jantzan baten batek. Nik ez naben asko eitxen. Bai, hori. Hori be holan da.

- Ta beste jolasen bat, holanik, eitxen zenduen?

- Bai. Zelan zan? "Al treinta de mayo". Ez doste emoten oin buruek, hori be etxat akordetan ta zerien, bueltaka korruen. Eta han be bat matarile-rile-rile, hori koadrillie, bat begire eta nik ez daitx, "Qué oficio tiene usted" ta "Oficio de arrascar la chimenea" ta hori ez gendun entzun gure ixeten holakorik baia...dauenak kanteten ebaban entzun ein biher eta holan. Ez dakitxetez, kantak etxatez akordetan oin.

2.9. Umeen jolasa zaku gainetik saltoka

- **Hizlaria(k):** Elorza Ugarriza, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** ERE-005/025
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:51:20. **Bukatu:** 00:53:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ensunza, Ariane
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak,

kontakizunak

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

- **Laburpena:** Nolakoa zen etxea erre aurretik. Sarreran almazenetik ekarrita zakuak egoten ziren (zahia, baba...) jendeari saltzeko. Umeak zirenean han jolasean ibiltzen ziren zaku gainera igo eta behera salto egiten. Hango amona Marzelina oso emakume ona omen zen, inoiz ez zieten errietary egiten eta.

Transkripzioa

- Ta hau esango dotzut. Lehengo etziek euki eban ezkatza untxe euki daben lekuen, beti euki daben lekuen ta dendie betiko lekuen. Ta ezkatzien, gero, pasillue gorako. Korrajue. Ate bat eta atzien eskillarie, bai, gorako eskillarie. Eta jatekue, komedora...mahaixe jatekue, ezkatza, eta pasillue, horra bentanie, ta mahaixe han albuen, ezkatzan albuen. Hantxe jaten zan eta han, gorako bidie goixen. Eta behien, oin be badau ta leku galanta egongo da, salo galanta, hiru edo lau mahai kabiten zien. Eta egoten zien sahaixe, babie eta horrek ekarte zitxuzen almazenetik. Gero jentiek han erosi eitxen zitxuxen. Ta saltzeko. Ta egote zien zakuen pilluek, pillo itzelak, e! gora arteko pilluek, eta guk illundu arren be hantxe, zaku ganera igon ta behera salto. Ta lantzien igul zaku bat botaten gendun behera ta amuma Marzelinak sekule agorik edai bez, beran umiek izen zien gehixenak eta, erriztarik iñoz bez erriztarik. Ta beti zeuzer emon, beti zeuzer emon. Harek andrik beti eukitxe eban zeuzer emoteko. Andra ona, ona ta aitzitxe, oster, serixue. Umiri kasurik bez. Erriztarik bez, e! Erriztarik pez, baia kasurik pez. Ta Marzelek hainbeste ume ta lantzien ume bat emote doskun guri jaboteko ta beste bat besuen ta beste bat tripan ta koitxadie halantxik. Halantxik. Goizeko mezara etorte zan ta mezie entzun ta sartzen zan hantxe ta hantxe, etxien barruen.

2.10. Kanpai-klaseak

- **Hizlaria(k):** Elorza Ugarriza, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** ERE-005/027
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:53:50. **Bukatu:** 00:55:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ensunza, Ariane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kanpaiak
- **Laburpena:** Kanpai-klaseak eta bakoitza noiz jotzen zen. Iluntzean aramaitakoa ilunarekin batera eta gero arimena. Domeketan albarakoa goizeko 5etan eta gero meza-kanpaia. Gero monagiloak aldarekoa jotzen zuen eta 12etan ere kanpaiak jotzen ziren.

Transkripzioa

- Maria Luisa, ni lehengora noie. Kanpaiek. Zemat kanpa-klase egoten zien? Zeaitxik jotzen zien kanpaiek? Herrixen ordue jotzen zan? Noiz jotzen zin kanpaiek?
- Kanpaiek? Illuntzien jotzen zan abemaitxekue.
- Ze orduten?
- Ba, illunaz batera. Ta illunetik eta...
- Neguen zein udan, illunaz batera.

- Bai.

- Ordu diferentietan, ordun.

- Bai. Eta arimena gero osta be. Gero arimena, arimenan kanpaie, don-don. "Ene, arimena joten". Arimak. Arimak. Gure amak esaten eban "Arimak hasi diarrez ta errezau, errezau". Bueno eta domeketan albarakue, goizeko bostetan. Emeterik joten eban. Emeteri gixajie.

- Albarakue.

- Albarakue, goizeko bostetan, e! Daun-daun-daun-daun-daun. Eta gero, joten ban albarakue ta gero meza-kanpaie. Bigarrenez. Meza-kanpaie joten eban, zortzi kanpa-edo ez dakitx ixeten zan eta, gero, monagilluek, altarakue, dran-dran. Monagillue gero, hirugarrena. Ta eberdixen, hamabixek. Hamabixetan kanpaiek.

- Hamabixetakue zegaitxik ixeten zan?

- Ba, eberdixe dala-ta. Bai. Eberdiko horixe kostunbrie ya...

- Biherra itxitxeko-ta?

- Bai, biherra itxitxeko ta bazkarixe eitxeko eta, ba, horrek. Eta jatekue...bai, jatekue jateko. Eta hamabixetan joten zan kanpaie. Eta illuntzien abemeitxekutan ba illuneaz batera abemaitxekue.

- Zelan esan dozu? Illuntzekue zelan?

- Illuntzekue, abemaitxekue.

- Abemaitxekue?

- Abemaitxekue. Ta gero arimena.

- Bi?

- Bi, bi. Illuntzien. Bai, bai. Holan zan gure antziñeko denporie.

2.11. Ezagun bati gertatutako pasadizoa

- **Hizlaria(k)**: Elorza Ugarriza, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref**: ERE-005/029
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:57:20. **Bukatu**: 01:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Ensunza, Ariane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- **Laburpena**: Ezagun bati geratutakoa kontatzen du. Bizkorra zen eta irakaslearekin ez zen ondo konpontzen. Irakasleak eskola barruan preso utzi zuen, baina bere izebak kanpora atera zuen.

Transkripzioa

- Eta abadikaz ez zin ondo konpontzen. Ez, ez zin konpontzen ondo, keba! Eta Abadikaz ta maixukin be bai. Andoni bera be bizkorra, bizkorra Andoni be eta maixuek kastigaute ixten ban eskolan ta Fidela ekon ixekue baia...baia, e! Guresuek eitxen ez dabena eitxen eban harek, e! Ta ha, Andoni itxi eskolan, mutillen eskolie... Badakixu nun dauen? Oin ez daitx hor medikuk eta ez daitx nortzuk dauzen oin han. Ta Primaneko etziek jardiñe han atzien, oin be han egongo da jardiñe, eta kastigaute Andoni itxi deu maixuek. Kastigaute itxi deu ta atie zarratu eta...baia bentanak eta jardiñe han, bai, sartun biher Primanetik. Prima jostune, jakingo dozu.

- Bai.

- Haren etzin azpitxik patiñera-ta, haren atetik sartu pasillo batetik sartun

biher. Ta Andoni itxi dabe preso, maixuek. Itxi deu preso eta agiri ez etzera eta agiri ez. Eta ama...ixekuek baekixen, kontuixu, zer pasauko zan eta jun da eta hau... atie eskolako atie zarratute eta mutille barruen. Ta ze ein deu ixekuek? Fidela eukon ixena. Ze ein deu? Edai Primaneko atie, pasau han pasilluen ta ortureko ta patinherako atie edai ta handik edai Andonik berak bentanie barrutik edai, atara handik ta etzera. Bazkarixe jateko. Eta gero maixue etorri ta eskolie zabaltzeko eta Andoni kanpuen olgetan eskolarako ta maixue nun egon dan errixtan-edo ez dait ba nik, zeuzer jo-edo ta Andonixorrek eskapau etzera ta ixeko maixuri lotsak emoten. Halantxik.

3. Herria, azpiegitura

3.1. Elizpean kaniketan; bolatokia plazan

- **Hizlaria(k):** Elorza Ugarriza, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** ERE-005/014
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:30:35. **Bukatu:** 00:31:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ensunza, Ariane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Elizpean jolasten zuten kaniketan. Orduan elizako losak parean zeuden denak. Plazan bolatokia zegoen.

Transkripzioa

- Maria Luisa, baia elixapie leku txarra da kaniketan eitzeko.
- Ba hantxe eitzen gendun ba!
- Ze dana dau losa bat beherau, beste bat gorau.
- A, ez, baia ordun lisu.
- A, lisu egon zan orduen?
- Bai, liso-liso egon zan, liso egon zan ta hantxe. Nun eingo gendun ba?
- Kanpun be, plazan be, ezin ein, harrixe-ta han plazan oin be zementue ta botata dau baia ordun ez euen eta ezebez. Ereñon bolatokixe be plazan egon zan, lurre...
- Plazan bolatokixe?
- Bai.
- Nun?
- Nun? Hantxe badau ba han Bengetzerako balkoie badau ba? Ikusteko Bengetze ta danak ikusteko, ba hantxe, haxe zan bolatokixe.
- Bolatokixe ala probalekue?
- Probalekue ez. Bolatokixe. Probalekue erdixen, plazin erdixen probalekue. Ta hantxe bolatokixe.

4. Baserria

4.1. Amona Marzelen inguruko kontuak

- **Hizlaria(k):** Elorza Ugarriza, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** ERE-005/022

- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:45:00. **Bukatu:** 00:47:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ensunza, Ariane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Jesusa izeneko lagun baten etxean asko egoten zen. Hango etxeko amona Marzel nolakoa zen azaltzen du: emakume handia eta zabala eta "atentzioa deitzeko moduko guapa". Lan asko egiten zuen. Romero izeneko astoarekin urrutiko sailetara joan behar izaten zuten. Astoari belarriak estaltzen zizkioten kotxeekin ez beldurtzeko.

Transkripzioa

- Ba hantxe, Tia Jesusa be eliza ondolik etorritxe bueno, bueno, bueno, gurin etzeko Bonineko umie neu be bai gero orduen e! Neu be Boniñen etzeko ixen na ni. Baia eurek bebai geurin e! Tia Jesusa egoten zan, pentsau be ez zaban eitxen ez gora jun biher ebanik eta holakorik, ta beste ume batzuk baia Jesusa hantxe urte guztien. Neu be bai. Marzel ona zan e! Amuma.
- Ezetu zendun zuk amuma Marzel?
- Ai, ezetu ez! Bai ondo!
- Bai, e?
- Ondo! Amuma Marzel ez neban ezetuko, ba! Jesusa ia, Jesusa ta bixok edade batekuk gara ta Jesusak...urtik eukiko genduzen guk. Hamar urte bai. Ha hil zanien euko genduzen guk.
- Hamargarren umie eikeran hil zan ha.
- Bai. Bai. Bai. Gixajie. Andra ona.
- Zelaku zan? Handixe, txikixe, lodixe...?
- Ez. Ixen zan atentziñoa deitxuteko guapie. Atentziñoa deitxuteko guapie. Haren moduko umerik! Zeuk dekozu antza zuk harena.
- Eskerrik asko Maria Luisa!
- Amaia, ez pentseu broman nauenik e!
- Amuma Marzelen antza, nik? Bai?
- Bai. Zan guapie. Guapie atentziñue deitxuteko.
- Eskerrik asko Maria Luisa. Zuk begi horrexekaz beixu niri.
- Atentziñue, atentziñue deitxuteko guapie ixen zan.
- Ta haundixe, andra haundixe-edo.
- Bai, ta zabala.
- Ta zabala.
- Biher asko. Krixedie eukitxen eban. Baia baserrixue eukitxen eban ta zaldixe...astue! Romero. Ta automobilek-eta, ordun automobilek ez zeuen baia banaka, ikeratu ez deizen, horko Ereñoako hariztixe badakizu zein den?
- Bai.
- Han, han dana solue eta bedarra, ha baserrixue. Terreno asko dekozue zuek han. Bonineko terrenuek asko dauz hor. Eta automobilek-eta asustau ez deizen, kartuliñez belarrixek eindde ha astue, Romero. Holan belarrixek tapeute ipiñitxe. Eta hantxe harexen ganien ta gorantz in ta beherantz in hutsik-eta. [...] Mañesi Zenikoaz.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com